

GOBERNU BATZARRA

2018. 01. 16

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarilaren hamaseian, arratsaldeko 16:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa	
Idazkaria:	1.- Aurreko akta onartzea.
Begoña Garmendia Vázquez	2.-Oriaburu eraikinean barne-erreformak 1. solairua coworking erabilerara egokitzeko obren 2. ziurtagiria (1107/2017 faktura).
Kontuhartzailea:	3.-Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektuan jasotako obren 8. ziurtagiria (V-17/1001).
Ainhoa Molinos Zubiaurre	4.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2017Ko azaroa.
	5.- Hamabi trafiko laguntzaile kontratatze oinarriak onartzea eta deialdia egitea.
	6.-Errolda eta Estatistikako administrariaren lanpostua aldi baterako hornitzeko zerbitzualdia: oinarriak onartu eta deialdia egitea.
	7.-71-72/2017 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko abenduaren 26an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Oriaburu eraikinean barne-erreformak 1. solairua coworking erabilerara egokitzeko obren 2. ziurtagiria (1107/2017 faktura).

Tolosko Udalak Construcciones Echaide, S.A., enpresari esleitu zion Oriaburu eraikinaren lehenengo solairua egokitzeko barne-egokitzapenen obren kontratua, 102.697,68€ (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu den ziurtagiria honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria1074/2017.....22.061,68 €

Orain 2. ziurtagiria aurkeztu dute, honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

2. ziurtagiria1107/2017.....38.147,94 €

GUZTIRA..... 38.147,94 €

Ziurtagiria hau aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU:

LEHENA.- Oriaburu eraikinaren barne-erreformen 1- solairua Coworking erabilerara egokitzeko obren 2. ziurtagiria onartzea.“ Zenbatekoa 38.147,94€-koa.

BIGARRENA.- Fakturen ordainketa egitea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, “Construcciones Echaide, S.A.”. enpresari eta Kontuhartzailetza departamentuari.

3.- Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektuan jasotako obren 8. ziurtagiria (V-17/1001).

Tolosako Udalak Altuna y Uria SA enpresari esleitu zion “Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua”-n jasotako obren kontratua, 847.672,87 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0371.....	14.251,27 €
1. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0372.....	4.516,93 €
2. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0441.....	33.207,58 €
2. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0440.....	9.975,11 €
3. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0529.....	58.215,24 €
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0530.....	8.887,46 €
4. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0587.....	131.440,40 €
4. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0588.....	16.554,62 €
5. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0698.....	90.984,71 €
5. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0699.....	7.509,84 €
6. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0798.....	124.197,51 €
7. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0910.....	87.084,07 €
GUZTIRA.....		586.824,75 €

Orain 8. ziurtagiria aurkeztu dute, honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

8. ziurtagiria (%21eko BEZa).....	V-17/1001.....	120.673,62 €
GUZTIRA		120.673,62 €

Ziurtagiria hau azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU:

LEHENA- “Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua”-n jasotako obren 8. ziurtagiria onartzea: Zenbatekoa 120.673,62€-koa.

BIGARRENA- Fakturen ordainketa egitea.

HIRUGARRENA- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Altuna y Uria SA enpresari, Gipuzkoako Urak enpresari eta Kontuhartzaitzari.

4.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2017Ko azaroa.

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak 2014. ekitaldian mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten zehazteko irizpide berriak onartu zituen. Irizpide hauek bilketa sistema desberdinen existentzian dute oinarria eta zati finko bat eta zati aldakor bat finkatzen dira. Zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko abenduaren 19an Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2017ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

2017ko apirilaren 10ean, Gobernu Batzarrak Tolosaldea Mankomunitateari ordaindu beharreko ekarpen finkoa onartu zuen. 2017Ko ekainaren 1etik aurrera ekarpen finkoa hilabeteko 92.742,17€koa da.

Ekarpen aldakorra, jasotzen den hondakin kopurua eta bere sailkapenaren arabera da.

2017Ko azaroko datuak

Ekarpen finkoa	92.742,17€
----------------	------------

Ekarpen aldakorra	
Bilketa kostuak	150.848,99€
Diru sarrerak	27.048,62€

Guztira (2017ko azaroa) 123.800,38€

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumena Teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo faktura onartzea:

2017 azaroa	123.800,38 €
-------------	--------------

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ingurugiro departamentuari eta Kontuhartzailetzari.

5.- Hamabi trafiko laguntzaile kontratatzeako oinarriak onartzea eta deialdia egitea

Udaltzaingo sailetik, 2018 urteko Iñauterietako antolaketaarako eta dauden beharren arabera, 12 trafiko laguntzaile kontratatzea proposatu dute, hiru egunez (igandetik asteartera). Behar hauek Udaltzaiburuaren txosten batean isladatu dira non festaren segurtasuna bermatzeko beharrezkoa ikusten duen hiru egun horietarako aipatu giza baliabideak kontratatzea.

Honela, urtero bezala, trafiko laguntzaileak hautatzeko oinarriak prestatu dira, ondoren, publizitatea eman eta hautaketa prozesua bideratzeko. Hautaketa prozesua bideratzeko Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilean oinarritzen den berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioetan oinarritzen da, aipatu langileak izendatzeko beharra eta urgentzia justifikatuta.

Zentzu berean, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 9/1989 Legearen 33. artikulua ondorengoa xedatzen duela: “33. atala.1. Bitarteko funtzionariak eta aldi baterako langilegoa arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-erizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzeko saiatuz. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.”

Honela, azkartasun printzipio honetan oinarrituta eta kontuan hartuta, aipatu trafiko laguntzaileak egingo dituzten funtzioak, hautaketa prozesua, salbuespenzko modu batean, elkarriketa baten bidez bideratzea proposatzen da, beti ere titulazioa eta bigarren hizkuntz eskakizuna egiaztatzen badute.

Bestalde, ekainaren 27ko 3/2017 Legeak, 2017 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu. Bertan, aipatu legeko 20 artikuluko bigarren apartatuak dioenaren arabera, ezin izango da egin aldi baterako kontrataziorik, ezta bitarteko funtzionariorik izendatu ere, baldin eta ez bada salbuespenezko kasuren bat, premiazko eta atzeraezinezko beharren bati erantzuteko; gainera, mugatuko dira lehentasunezko izaera duten edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduetan eragina duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara.

Horregatik, departamentu bakoitzeko txosten/proposamenak eduki behar ditu, gutxienez, hurrengo atal hauek:

- Proposatu nahi den kontratazioak ohiz kanpokoa izan behar du eta ez inolaz ere kasu arrunta.
- Txostenean justifikatu eta arrazoitu egin behar dira kontratazioaren premia eta geroraezintasuna.
- Kontratazio proposamena mugatu egin behar da lehentasunezko izaera duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara. Horretarako, justifikatu egin behar da lehentasun hori, kontuan izanda zure departamentuan une konkretu bakoitzean dauden beharrak.

Guzti hau kontuan hartuta, udaltzainburuak 2018ko urtarrilaren 8an txostenean aspektu hauek justifikatu ditu.

Bestalde, aurrekontu konsignazioari dagokionez, 2018 urteko aurrekontuan partida bat honetarako aurreikusia dago, honen kostoa 8.700 eurotan finkatzen delarik. Soldatari dagokionez, trafiko laguntzaile bakoitzak 533,03 euro gordin jasoko ditu (udalhitz mailaren 8 mailaren baliokidea).

Halaber, batzordekideek aztertu dute udaltzaingoaren plantilaren egoera. Izan ere, une honetan, 8 hutsune daude dotazioetan, eta Arkauten ez omen dago inor aldi baterako zerbitzuen beharrak asetzeko.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta espedientean agertzen txosten teknikoarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 12 trafiko laguntzaile kontratatzeko deialdia lehentasunezkoa deklaratzeko, zerbitzua premiazkoa eta atzeraezina kontsideratzen delako. Hala ere, kopuru hau zabaldu ahal izango da, eta 18 laguntzaile kontratatu ahal izango dira, baldin eta udaltzaingoan dauden hutsuneak ez badira betetzen aipaturiko datatan.

BIGARRENA.- Aipatu Trafiko laguntzaileak kontratatzeko (inauterietako igandetik asteartera) deialdia eta oinarriak onartzea, dagokion publikizitatea emanaz.

6.- Errolda eta Estatistikako administrariaren lanpostua aldi baterako hornitzeko zerbitzualdia: oinarriak onartu eta deialdia egitea.

Idazkaritzako errolda eta estadistikako administraria berehala jubilatuko denez, bera behin-behineko izaeraz ordezkatzeko, interesaturik dauden langileen artean deialdi bat egitea proposatu da. Lanpostua oraingoz zerbitzu eginkizunetan beteko litzateke, urtebeteko iraupena izango luke, beste urtebeteko luzapenarekin.

Euskal Funtzio Publikoaren 54 artikuluan eta Eusko Legebiltzarreko 190/2004 Dekretuan non Euskal Herriko Administrazioetako funtzionarien lanpostuek betetzeko araudia onartzen den, bere 47 eta hurrengo artikuluetan zerbitzu eginkizun figuraren erregulazioa eta funtzionamendua garatzen du.

Ilido honetatik, aipatu administraria izendatzeko oinarriak prestatu dira, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilean oinarritzen den berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikizitate printzipioetan oinarrituta, aipatu langilea izendatzeko beharra eta urgentzia justifikatu ondoren.

Zentzu berean, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 9/1989 Legearen 33. artikulua ondorengoa xedatzen duela: “33. atala.1. Bitarteko funtzionariak eta aldi baterako langilegoa arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-erizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzeko saiaturik. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.”

Honela, azkartasun printzipio honetan oinarrituta eta kontuan hartuta, aipatu lanpostuan egingo dituzten funtzioak, hautaketa prozesua epeak murriztuaz egingo da, beti ere karrerako funtzionari izendapena eta hirugarren hizkuntz eskakizuna egiaztatzen badute.

Bestalde, ekainaren 27ko 3/2017 Legeak, 2017 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu. Bertan, aipatu legeko 20 artikuluko bigarren apartatuak dioenaren arabera, ezin izango da egin aldi baterako kontrataziorik, ezta bitarteko funtzionariorik izendatu ere, baldin eta ez bada salbuespenezko kasuren bat, premiazko eta atzeraezinezko beharren bati erantzuteko; gainera, mugatuko dira lehentasunezko izaera duten edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduetan eragina duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara.

Horregatik, departamentu bakoitzeko txosten/proposamenak eduki behar ditu, gutxienez, hurrengo atal hauek:

- Proposatutako nahi den kontratazioak ohiz kanpokoa izan behar du eta ez inolaz ere kasu arrunta.
- Txostenean justifikatu eta arrazoitu egin behar dira kontratazioaren premia eta geroraezintasuna.
- Kontratazio proposamena mugatu egin behar da lehentasunezko izaera duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara. Horretarako, justifikatu egin behar da lehentasun hori, kontuan izanda zure departamentuan une konkretu bakoitzean dauden beharrak.

Guzti hau kontuan hartuta, Udal Idazkariak 2018ko urtarrilaren 15ean txostenean aspektu hauek justifikatu ditu.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta espedientean agertzen diren txostenekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Errolda eta Estatistikako administraria izendatzeko deialdia lehentasunezkoa deklaratzeko, zerbitzua premiazkoa eta atzeraezina kontsideratzen delako.

BIGARRENA.- Aipatu administraria izendatzeko deialdia eta oinarriak onartzea, dagokion publikitatearen emanaz.

7.- 71/2017 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **71/2017** faktura zerrenda aurkeztu du; **4.127,79 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 71/2017 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **72/2017** faktura zerrenda aurkeztu du; **388.149,51 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 72/2017 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 18:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA